

Lide Egizala Urteaga

B maila • 1 saria

Kaixo! Ni Lide naiz, 16 urteko neska ameslari, alai eta ausarta. Lazkaon bizi eta ikasten dut, baina betidanik gustatu izan zait "konfort zone"-etik atera, leku berriak esploratu eta gauza berriak probatzea, bakoitzaren mugak zein diren ezagutuz.

16 urte hauetan aldaketa asko gertatu dira nire bizitzan, errusiar mendi baten antzekoa izan dela esango nuke. Bizipen on eta txar asko bizi izan ditut, baina bizipen horiek, baliagarriak egin zaizkit hauetatik ikasi, aurrera jarraitu eta indartsuago bilakatzeko, orain naizena izatera iritsi arte. Nire inguruko jendearen laguntza ezinbestekoa izan zait aurrera jarraitzeko eta eskerrak eman nahi dizkiet niregatik egiten duten guztiagatik.

Poema hauekin, denok gure bizitzako errusiar mendian sentitzen ditugun gora beherak, barruan ezinegon izugarria eragiten diguten eta azaltzeko hain zailak egiten zaizkigun sentimenduak adierazi nahi izan ditut.

Oraingoan ordea, barru guztia hustu dut, nire pentsamendu, gogoeta, beldur eta bizipen gogor guztiak hartu eta poesia bihurtuz. Nire helburua, poemak irakurtzean, jendea identifikaturik sentitzea da. Momentu txarretatik ere pasa egin behar da onak estimatzeko. Errusiar mendian bizitza osoan ibiliko gara, batzuetan hobe eta besteetan okerrago, baina eskerrak hala den, bizirik gaudenaren seinale baita!



SALDURIKO ARIMA

EZINTASUNA

Eguneroko sentimendu zaparrada,
uholdea eraginez nire barruan,
berriro ere goitik behera utzi nau biluzik
babes barik
gaur, bihar eta etzi
gertatuko denaz izuturik.
Nahasmena,

ia itoan, hala ere bihotza hotzena.
Gaur ere amaigabeko ekaitza,
non galtzen dudan momentu batez bizitza,
nire gorputzaren giltza,
tristura izugarria nire erraietan barrena, ezin
dut,
ezin dut atera barruan dudan ezintasuna,

benetan iluna,
bakardadea da nire laguna,
munduan bakarrik,
hainbeste gatazka
baina handiena nire buruan
eta ezin azaldu munduan,
ezin pentsatu gabe bizi
zergatik pentsatzen dut hainbeste?
Galdetzen diot nire buruari,
baina ez dut erantzunik
eta berriz hasten naiz pentsatzen,
nire barruaz abusatzen, indarrak agortzen,
geroz eta nahasiago, ez dut asmatzen ideiak
argitzen...
Zurrunbilo batean preso,
kartzela baten antzera, ezin ihes egin
bertatik,
nire ahotsa eman nahi dut aditzera!
Aurrera begiratu nahi eta beti egiten dut
atzera
dena errazagoa zen momentu haietara
baina, ingurura begiratzea, ez dut behar
besterik,
itzul nadin errealitatera.
"Perfektua" hitza, ez baita erreala,
baina hau ahaztea gaur egun, benetan da
lan zaila
hala ere, bere esanahia egunetik egunera
doa galtzen,
eta era berean ari naiz
pertsona bezala heltzen
beti ez baita irabazi edo galtzen
eta ikasi dut,
bizitza aurrera doan eran, pixkanaka doala
zailtzen,
zenbat gauza kontuan hartzeko!
Orain ere burua nekatzen!
Barruko sentimenduak ari zaizkit pixkanaka
herdoiltzen,
iada ez dut gauza txikiez ere disfrutatzen
zer ari zait gertatzen?
Burua ari naiz galtzen
baina gauzak hobetuko diren itxaropena
inoiz ez zait hiltzen.

HERSTURA

Eztena sartu didate bihotzean
pozoia nire zainetan barrena barreiatzen,
egin garrasi eta dena berriro hasi,
beti bizitza hobe baina besteena,
besteek berdina pentsatzen dutela jakitea da
harrigarriena.
Harrigarria, batzuek ikusezin bihurtu nahi
eta beste batzuk asperturik ikusezin izateaz,
besteen itzal izateaz, zapaldua izateaz
eta komeni zaienean bakarrik kasu egiteaz.
Garrantzitsua sentitu nahi dut, entzuna izan
nahi dut,
ez daukat asmorik egindako guztia ahazteko!
Gainontzekoek entzun nazaten behingoz!
Nik ere gauza izugarriak baititut esateko!
Hegalak ireki eta hegan egin,
libre bizi, pertsona bezala hazi,
egin dezagun hori posible izateko ahalegin
horrelako mundu bat sortu dadin
alde atsegina zein desatseginekin.
Ihes egiteko gogo, gizartea aldatu, ni naizen
bezalakoa agertu,
lasaitasunez bizi eta
egunerokoaz disfrutatu
asko eskatzea izan daiteke, baina nahikoa
da,
izan baitut nire barruan nahiko eztabaida eta
haserre
Nire adineko batek arduratu beharko lukeen
gauzetaz bakarrik arduratu, jolastu, gauza
berriak probatu...
baina nire barruko ahotsak ez dit uzten,
preso bizi bait naiz nire ezintasunean,
nazkaturik, zergatik ezin dut bizi
naturaltasunean?
Gogorra egiten zait kontrolpean bizitzea, ez
naiz nire buruaren jabe, bizitza ideala izango
litzateke egotea ardurarik gabe,
inbidia zekena, beti nork egin besteak baino
hobe...
Nire bizitza egun batetik bestera aldatu
nahiko nuke,
hori pentsatuz jaikitzea da benetan latza
noiz arte izango da bizitza hain garratza?